



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAGARKIA

2021eko azaroaren 24ko Alkatetza Dekretu bidez honakoa onartu zen:

LEHENA.- Azkoitiko udalak, UROLA EKITEN VII proiektuaren eta EKOBAILARA IX azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko (1. motako jarduera), bigarrenengo fasean, 4 balio anitzeko peoi (denak 6 hilabeterako eta %100 lanaldian) – kontratatzeko **deialdia** egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera.

BIGARRENA.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak eta lanpostuen ezaugarriak jasotzen dituen dokumentua onartzea, ebazpen honi eranstean zaizkionak.

HIRUGARRENA.- Deialdiari dagokion zabalkundea ematea, Udaleko web orrian lan eskaintza atalean, berrien atalean, komunikabide desberdinetan eta *Urolanprest*-en, **betiere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko diru-laguntzen deialdia onartzen duen 2021eko ekainaren 16ko ebazpenaren 13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**

LAUGARRENA.- Hautagaien zerrenda, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez osatuko da, erakunde horrek egingo duen aurre-hautaketa, ezarritako ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuz.

BOSGARRENA.- Aurre-hautaketa eginda, udalak dagokion hautaketa egingo du, horretarako ondoko Epaimahai kalifikatzailea eratuko delarik:

- Epaimahaiburua: Udal idazkaria.
- Epaimahaikideak:
 1. Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Garapen Iraunkorra Saileko teknikari bat.
 2. Ongizate Saileko teknikari bat.
 3. Lantaldeko Arduraduna.
 4. Kontu-hartzailea edo Kontu-hartzaitzako teknikari bat.
- Epaimahaiko Idazkaria: Idazkaritza Saileko Erdi mailako Teknikaria

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontu-hartzaitza sailari ematea.

Azkoitian, 2021eko azaroaren 24an
ALKATEAK,